17. La gestión de la prevención de riesgos en las Escuelas Infantiles. Condiciones de trabajo y salud.



DEIALDIA, HIRU IZANGAI-ZERRENDA HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO, HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI ARITZEKO, GAZTELANIAZKO EREDUAN, EUSKARAZKO EREDUAN ZEIN GAZTELANIAZKO PROGRAMAN INGELESEKO JARDUEREKIN, –BAT PRESTAKUNTZARAKO, ETA BESTEA ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO–, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA

IV. DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO, PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI LANPOSTUAN ARITZE ALDERA, GAZTELANIAZKO EREDUAN, EUSKARAZKO EREDUAN ZEIN GAZTELANIAZKO PROGRAMAN INGELESEKO JARDUEREKIN.

Hona deialdi hau arautuko duten

OINARRIAK

Lehena.- Deialdia iragartzen da, izangai-zerrenda bat hautaprobek bitartez osatzeko, HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritze aldera, gaztelaniazko ereduan, euskarazko ereduan zein gaztelaniazko programan ingeleseko jarduerekin, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoan aldi-aldi gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.- Hautatutako pertsonen deitzen ahalko zaie hala lanaldi osoan nola partzialen aritzeko, zerbitzuaren uneen-uneen beharren arabera.

Hirugarrena.- Parte-hartzaileen betebeharrak.

3.1. Deialdian parte hartzen dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Iruñeko Udalaren edota haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoak izatea, C edo D mailakoak edo taldekoak, eta ez edukitzea agorturik eskubidez dagokien gehieneko prestakuntza-aldia.
- b) Lanpostuan gutxienez hiru urte benetan eman izana.
- c) Ez egotea borondatezko edo nahitaezko eszedentzian.
- d) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean honako titulu hauetako bat edukitzea edo lortzeko maneran egotea: Oinarriko Hezkuntza Orokorreko irakasle-titulua, Eskolaurre-espezialitatean, edo bestela Maisu- edo Maistra-titulua, Haur Hezkuntzako espezialitatean, edo horien baliokide den Gradu-titulua, izangaia haur-hezkuntzako irakasle gisa lan egiteko gaitzeko balio duena.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko dute.



3.2. Deialdi honi dagokion HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostua prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran betetzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute euskara berariazko betekizun gisa dituzten lanpostuetan aritzeko, baldin eta eskabideak aurkezteko mugaegunean Nafarroako Gobernuak ematen duen Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) badute, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa, eta, zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

3.3. Deialdi honi dagokion HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute ingelesa berariazko betekizun gisa dituzten lanpostuetan aritzeko, baldin eta eskabideak aurkezteko mugaegunean B1 mailako ingelesezko titulua badute, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B1 mailaren ofizialki baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

3.4. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri honen 3.1. d) letran eta 3.2 eta 3.3 zenbakietan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

3.5. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola prestakuntzak dirauen bitartean ere.

Laugarrena.- Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa

Hautapen-prozesua ebazpen honetan bi deialdietarako onetsitako arau komunetan ezarritakoarekin bat egingen da.

Bosgarrena.- Prestakuntzako izangaiei dei egitea.

Izangaiei deitzea, eta, hala badagokie, prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeran aritzeko izendapena honako hauetan ezarritakoarekin bat egingen dira: apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua eta dagozkion aldaketak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –Iruñeko Udalean langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Aipatutako Erabakian berariaz ezartzen da prestakuntzarako zerrendak lehentasuna izanen duela aldi baterako kontrataziorako hautapen-probetarako deialdi publikoen bidez eraturako izangai-zerrendarekiko.

V. DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO, ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAN HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI LANPOSTUAN ARITZE ALDERA, GAZTELANIAZKO EREDUAN, EUSKARAZKO EREDUAN ZEIN GAZTELANIAZKO PROGRAMAN INGELESEKO JARDUEREKIN.

Hona deialdi hau arautuko duten

OINARRIAK



Lehena.- Deialdia iragartzen da, izangai-zerrenda bat hautapoben bitartez osatzeko, HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan aldi baterako kontratazioan aritze aldera, gaztelaniazko eremuan, euskarazko eremuan zein gaztelaniazko programan ingeleseko jarduerekin, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoan aldian-aldian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.- Hautatutako pertsoneri deitzen ahalko zaie hala lanaldi osoan nola partzialean aritzeko, zerbitzuaren unean-uneko beharren arabera.

Hirugarrena.- Parte-hartzaileen betebeharrak.

3.1. Izangaiek, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- f) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikagarria duen eremuko estatu batekoa.

Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatuetakoa herritarren ezkontideek ere parte har dezakete, betiere, zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, beren ondorengoek eta ezkontideenek –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

- g) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.
- h) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean honako titulu hauetako bat edukitzea edo lortzeko maneran egotea: Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle-titulua, Eskolaurre-espezialitatean, edo bestela Maisu- edo Maistra-titulua, Haur Hezkuntzako espezialitatean, edo horien baliokide den Gradu-titulua, izangaia haur-hezkuntzako irakasle gisa lan egiteko gaitzeko balio duena.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko dute.

- i) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea, bete behar dituen eginkizunetan aritzeko.
- j) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizita ere.

Espainiarrak ez diren izangaiek zinpeko aitorten bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.

3.2. Deialdi honi dagokion HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute euskara berariazko betekizun gisa dituzten lanpostuetarako kontratatutako izateko, baldin eta eskabideak aurkezteko mugaegunean Nafarroako Gobernuak ematen duen Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) badute, edo ofizialki baliokidetzat jotzen den titulazioa, eta, zehazki, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

3.3. Deialdi honi dagokion HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan aritzeko izangai-zerrenda bat osatze aldera hautatutako izangaiek aukera izanen dute ingeleza berariazko betekizun gisa dituzten lanpostuetan aritzeko, baldin eta eskabideak aurkezteko mugaegunean B1 mailako ingelesezko titulua



badute, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B1 mailaren ofizialki baliokidetzat jotzen den beste edozein agiri.

3.4. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute oinarri honen 3.1. c) letran eta 3.2 eta 3.3 zenbakietan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

3.5. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

Laugarrena.- Dei egitea aldi baterako kontrataziorako izangaiei.

Izangaiei deitzea, eta hala badagokie, haien kontratazioa, honako arau hauetan ezarritakoarekin bat egingen dira: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren Xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua aurkeztuta.

VI. BI DEIALDIETARAKO ARAU KOMUNAK.

Lehena.-Eskabideak aurkezteko epea.

Bi deialdietan, eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, deialdi hauek iragartzen dituen aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Deialdi honen testu osoa eskuragarri dago www.pamplona.es/escuelasinfantiles webgunean eta Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren bulegoan (Oliveto Kondearen etorbidea, 4, 2. sol., Iruña).

Bigarrena.-Eskabideak.

2.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren bulegoan (Oliveto kondearen etorbidea, 4, 2. sol.) aurkeztu beharko dira, edo bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. 4. artikuluan aurreikusitako bideetatik edozein erabiliz.

Eskabideak Eranskinean jasotako ereduari lotuko zaizkio. Eredu hori aipatu bulegoan eskuratzen ahalko da, edo Interneten, www.pamplona.es/escuelasinfantiles helbidean.

Parte hartzeko eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Eskabidearekin batera, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, betiere ezertan galarazi gabe kontratatuak izateko deituak direnean jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua aurkezteko beharra:



- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen dituen agiriarena, eta behar izatera, aldi baterako kontrataziorako deialdiaren 2.1. a) letran eskatutako nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzei buruzko agiriarenak.
- Oinarrizko Heziketa Orokorreko irakasle-tituluaren fotokopia, Eskolaurre-espezialitatean, edo bestela Maisu- edo Maistra-tituluarena, Haur Hezkuntzako espezialitatean, edo horien baliokide den Gradu-tituluarena, izangaia haur-hezkuntzako irakasle gisa lan egiteko gaitzeko balio duena.
- Euskararen Gaitasun Agiriaren (EGA) edo baliokide baten fotokopia, halakorik behar izatera.
- Ingeleseko B1 mailako tituluaren fotokopia, halakorik behar izatera.
- Ziurtagiria, izena emateko eskubide tasa dela-eta 11,00 euro Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoari ordaindu izana egiaztatzeko. Tasa hori ordaindu ezean, izangaia bazterturik geldituko da.

Tasa Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoak honako finantza entitate hauetan dituen kontuetan ordain daiteke, haietan dirua sartuz edo haietara transferentzia eginez:

La Caixa- ES53 2100 5245 4122 0018 3371

Rural Kutxa- ES44 3008 0092 1424 1461 3329.

Aipatutako agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, haien eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra ezertan galarazi gabe.

Desgaitasun bat aitortuta duten izangaiek hori frogatzeko agiria –organo eskudunak emana– aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatu ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu zer-nolako desgaitasuna duten eta eskatutako egokitzapenak.

Hirugarrena.- Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda jendaurrean paratuko da Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren iragarki-taulan (Oliveto Kondearen etorbidea, 4, 2. sol.) eta www.pamplona.es/escuelasinfantiles webgunean, zerrendan izangaien izena, abizenak eta NANA adierazita.

Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta eskabidean egindako akatsak zuzentzeko, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoan eskabidea aurkeztuta.

Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoko lehendakariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda (izena, abizenak eta NANA agertuko dira, eta baztertuen kasuan, bazterketaren zergatia), eta agindua emanen du hori jendaurrean paratzeko Erakunde Autonomoaren iragarki-taulan eta www.pamplona.es/escuelasinfantiles webgunean. Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako hautapropa egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.

Izangaietan inor bazterturik ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da (izena, abizenak eta NANA adierazita) eta jendaurrean paratuko da Erakunde Autonomoaren iragarki-taulan eta www.pamplona.es/escuelasinfantiles webgunean, hautapropa egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.



Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa –edo Administrazioak jasotakoa– aztertzean ondorioztatzen bada eskatutako baldintzaren bat ez dutela betetzen, interesdunek deialdietan parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte.

Laugarrena.- Probak. Hautapen-prozesuak bi deialdietarako komunak diren bi hautaprobe izanen ditu.

4.1. Lehenengo proba. Proba teorikoa izanen da, eta izangaiek test erako galderak dituen galdetegi bat idatziz erantzun beharko dute –Epaimahaiak aurrez adierazitako gehieneko denboran–. Galderak Deialdi honen I. eranskineko gai-zerrendan agertzen diren gaiei buruzkoak izanen dira; galdera bakoitzari erantzuteko lau aukera egonen dira, eta horietako bat izanen da balio duena.

Proba honek gehienez ere 25 puntuko kalifikazioa izanen du. Proba egin aurretik zehaztuko dira hori baloratzeko irizpideak eta nola zigortu akatsak aukera anitzeko erantzunak dituzten galderetan. Proba gaindituko dute ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 (12,50 puntu), gutxienez, lortzen duten izangaiek.

Bigarren probarako deituko dira eredu bakoitzean –euskarazkoan, gaztelaniazkoan eta gaztelaniazko programan ingeleseko jarduerekin– eta zerrenda bakoitzean –bai prestakuntzarakoan, bai aldi baterako kontrataziokoan– lehenengo proba gainditu eta notarik altuenak lortu dituzten 10 izangaiek. Berdinketarik egonez gero 10. postuan diren izangaien notetan, postu horretan berdinduta dauden guztiak igaroko dira bigarren probara.

Deialdi honen xede den zerrenda agortuko balitz, izangairik ez egoteagatik lanerako kontratazeko moduan, deialdi osagarriak egin ahalko dira lehenengo proba gaindituta (gutxienez 12,50 puntu) eduki eta bigarren probara deituak izan ez diren izangaiek proba praktikoa egin dezaten.

Kasu guztietan, deialdi osagarri horiek gainditzen dituzten izangaiek lehenengo deialdian gainditutakoan atzetik egonen dira kontratazio-zerrendan.

4.2. Bigarren proba. Proba teoriko-praktikoa: garatzeko proba bat edo gehiago, praktikoa edota memoria-proiektu formatukoa, Deialdi honen II. Eranskineko gaitegian agertzen diren gaien ingurukoa. Izangaiek memoria-lana ahoz aurkeztu eta defendatu beharko dute Epaimahaiaren aurrean, zehaztuko den datan.

Epaimahaiak zehaztuko du proba honetako ariketak egun bakarrean edo desberdinetan egingen diren, baita horien iraupena ere, ezarritako edukien arabera.

Proban gehienez ere 60 puntu eskura daitezke. Probaren balorazio-irizpideak hura hasi aurretik zehaztuko dira. Proba praktikoa guztira ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 (30 puntu), gutxienez, lortzen duten izangaiek gaindituko dute.

4.3. Proba bakoitzerako deialdi bakarra egingen da, eta izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, AIZ edo pasaportearen aldean dutela azalduko dira haietara. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiek baztertuta geldituko dira.

4.4. Hautaprobak egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoan aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.



4.5. Proba bakoitza egin ondoren, izangai bakoitzaren emaitzak argitaratuko dira Erakundearen webgunean eta iragarki-taulan, izangaien izena, abizenak, NANA eta puntuazioa adierazita.

Proba bakoitzaren emaitzen aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Haur Eskolen Erakundearen bulegoetan eskabidea aurkeztuta. Behin erreklamazioak ebatzita, eta hala badagokio, egin beharreko hurrengo probaren eguna eta tokia adieraziko dira.

Bosgarrena.- Kalifikazio-epaimahaia.

5.1. Kalifikazio-epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Alfredo Hoyuelos Planillo, Iruñeko Udaleko Haur Eskoletako zuzendari kudeatzailea.

Epaimahaiburu ordezkoa: Maitena Muruzabal Olló, Iruñeko Udaleko Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria

Epaimahaikidea: Ainhoa Ibarrola Hernandorena, Atarrabiako Udaleko Haur Eskolako zuzendaria.

Epaimahaikidea: Inma Ajona, Iruñeko Udaleko Haur Eskolako zuzendaria.

Epaimahaikidea: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat.

Epaimahaikide-idazkaria: Inés Zazu Artuch, Iruñeko Haur Eskoletako zuzendari teknikoa.

Epaimahaikide-idazkari ordezkoa: Jaime Izal Elorz, Iruñeko Udaleko Haur Eskolako zuzendaria.

5.2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta Erakunde Autonomoko Gerentziari jakinarazi hori, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako aurreikusitako dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errefusatzeko, halako inguruabar horietako bat gertatzen bada.

Epaimahaiaren osaera aldatzen bada, epaimahaikideek parte ez hartzeko edota haien errefusatzeko legez ezarritako kasuak direla-eta, jendaurrean emanen da horren berri izangai onartuen eta baztertuen zerrendekin batera.

5.3. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

Epaimahaia ezin izanen da ez eratu, ez jardun gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe, ezta jardun ere epaimahaiburua eta idazkaria edo haien ordezkari direnak bertan ez daudelarik.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake probarako. Aholkulari horiek haien espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.



6.- Gainditu dutenen zerrenda. Izangaien zerrendak eta dei egitea.

6.1. Behin proben kalifikazioa bukatuta, epaimahaiak argitara emanen ditu Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakundearen iragarki-taulan eta www.pamplona.es/escuelasinfantiles webgunean honako zerrenda hauek, zein bere kabuz eta izena, abizenak NANA eta puntuazioa adierazita:

- Prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, erdietsi duten puntuazio osoaren hurrenkeran.

- Aldi baterako kontratazioari dagokion deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazio osoaren hurrenkeran.

Halaber, Epaimahaiak aipatu Erakundeari igorriko dizkio zerrendak, onets ditzan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

6.2. Izangaiek guztira lortzen dituzten puntuetan gerta litezkeen berdinketak Epaimahaiak ebatziko ditu irizpide hauekin bat:

- c) Prestakuntzarako izangaien deialdia: puntuetan berdinketarik gertatuz gero, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean izangaiek aitorturik daukaten antzinatasunaren arabera erabakiko da. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, zozketa bidez ebatziko da.
- d) Aldi baterako kontratazioarako deialdia: berdinketarik gertatuz gero, hautapen-prozesuaren bigarren partean –proba teoriko-praktikoan– lortutako puntuaziorik altuenaren arabera erabakiko da. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, zozketa bidez ebatziko da, eta berdinduta dauden izangaiei deituko zaie, zozketan egon daitezzen.

Izangai-zerrendak izangaia deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei osasun-azterketa bat eginen zaie, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

Zazpigarrena.- Izangaien zerrendak eta dei egitea.

7.1. Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, izangai-zerrendak onetsiko dira, izangaiei deituko zaien hurrenkeran (izena, abizenak, NANA eta lortutako puntuazioa agertuko dira), eta jendaurrean paratuko da Erakunde Autonomoaren iragarki-taulan eta www.pamplona.es/escuelasinfantiles webgunean.

Ebazpen honek onesten dituen deialdien oinarriek ezartzen dutenarekin bat deituko zaie arau honek aipatzen dituen zerrendetako izangaiei, eta kasu guztietan bermatuko da prestakuntzarako izangaiek lehenetsua edukiko dutela aldi baterako kontratazioarako izangaien aurretik. Momentu horretan aurkeztu beharko dituzte III. atalaren (Bi deialdietako arau komunak) bigarren oinarrian aipatutako jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo legeekin bat kautotuak.

7.2. Halaber, izangaiek, kontratatutako izateko deia jasotzen dutenean, aurkeztu beharko dute Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko egiaztagiria, frogatzeko epai irmo baten bidez kondenarik jaso ez izana sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

Zortzigarrena.-Errekurtsuak.

Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtsu hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:



- a) Berraztertze errekurtsoa, egintza zein organok egin eta horri zuzendua, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Epaimahai kalifikatzailearen egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

Iruña.- Lehendakaria, Mainer Beloki Unzu.



I. ERANSKINA

ESKABIDEA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI LANPOSTUAN PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO GAZTELANIAZKO EREDUKO ESKOLETAN

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ	JAIOTEGUNA	
NAZIONALITATEA	EGUNGO HELBIDEA	
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA		

AZALPENA:

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz, eta horiek jardunean aritzeko eskatu zaizkidanez bestekoak dira.

Eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Ez dut epai irmo baten bidez kondenarik jaso sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobeen bitartez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian parte hartzeko, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritze aldera. Deialdiaren iragarkia 2018ko ____ Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, _____aren ____ (e)koan.

Datuen babesa: Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Haur Eskolen Erakunde Autonomo honek langileen kudeaketa berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko, eta datu horiek Erakunde honetako langileen eta ordezkapenentzako lan-poltsaren fitxategietan bilduko direla. Hain zuzen ere, Erakunde honetara zuzenduta gauzatzen ahalko duzu datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, betiere bulego nagusira joaz (Oliveto kondearen etorbidea, 4, -2. solairua, ezk. – Iruña).

Iruñean, 2018koaren(e)an

(Sinadura)



I. ERANSKINA

ESKABIDEA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI LANPOSTUAN PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO EUSKARAZKO EREDUKO ESKOLETAN

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ	JAIOTEGUNA	
NAZIONALITATEA	EGUNGO HELBIDEA	
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA		

AZALPENA:

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz, eta horiek jardunean aritzeko eskatu zaizkidanez bestekoak dira.

Eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Ez dut epai irmo baten bidez kondenarik jaso sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobeen bitartez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian parte hartzeko, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritze aldera. Deialdiaren iragarkia 2018ko ____ Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, _____aren ____ (e)koan.

Datuen babesa: Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Haur Eskolen Erakunde Autonomo honek langileen kudeaketa berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko, eta datu horiek Erakunde honetako langileen eta ordezkapenentarako lan-poltsaren fitxategietan bilduko direla. Hain zuzen ere, Erakunde honetara zuzenduta gauzatzen ahalko duzu datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, betiere bulego nagusira joaz (Oliveto kondearen etorbidea, 4, -2. solairua, ezk. – Iruña).

Iruñean, 2018koaren(e)an

(Sinadura)

I. ERANSKINA



ESKABIDEA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI LANPOSTUAN PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN ARITZE ALDERA, BAKARRIK IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO GAZTELANIAZKO PROGRAMA INGELESEZKO JARDUEREKIN DUTEN ESKOLETAN

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ	JAIOTEGUNA	
NAZIONALITATEA	EGUNGO HELBIDEA	
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA		

AZALPENA:

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz, eta horiek jardunean aritzeko eskatu zaizkidanez bestekoak dira.

Eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Ez dut epai irmo baten bidez kondenarik jaso sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobeen bitartez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian parte hartzeko, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritze aldera. Deialdiaren iragarkia 2018ko ____ Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, _____aren ____ (e)koan.

Datuen babesa: Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Haur Eskolen Erakunde Autonomo honek langileen kudeaketa berezko dituen eskumenak gauatzeko baino ez direla erabiliko, eta datu horiek Erakunde honetako langileen eta ordezkapenentarako lan-poltsaren fitxategietan bilduko direla. Hain zuzen ere, Erakunde honetara zuzenduta gauzatzen ahalko duzu datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, betiere bulego nagusira joaz (Oliveto kondearen etorbidea, 4, -2. solairua, ezk. – Iruña).

Iruñean, 2018koaren(e)an

(Sinadura)



I. ERANSKINA

ESKABIDEA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI LANPOSTUAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO GAZTELANIAZKO EREDUKO ESKOLETAN

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ	JAIOTEGUNA	
NAZIONALITATEA	EGUNGO HELBIDEA	
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA		

Desgaitasunaren egiaztapena (hala badagokio, soilik).

Desgaitasuna dut, eta eskabidearekin batera egiaztatzen dut.

Nire desgaitasuna dela-eta, eransten dudana egokitzea eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik (beste orri batean).

AZALPENA:

Ez dut eritasun edo akats fisikorik edo psikikorik, karguan aritzea galarazten didanik, eta ez dut indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez naiz diziplina espediente bidez bereizia izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik, eta ez nago desgaituta edo gabetuta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz eta deialdiko baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Ez dut epai irmo baten bidez kondenarik jaso sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobeen bitartez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian parte hartzeko, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan aldi baterako kontratu bidez aritze aldera. Deialdiaren iragarkia 2018ko ____. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, _____aren ____(e)koan.

Datuen babesa: Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Haur Eskolen Erakunde Autonomo honek langileen kudeaketa berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko, eta datu horiek Erakunde honetako langileen eta ordezkapenentarako lan-poltsaren fitxategietan bilduko direla. Hain zuzen ere, Erakunde honetara zuzenduta gauzatzen ahalko duzu datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, betiere bulego nagusira joaz (Oliveto kondearen etorbidea, 4, -2. solairua, ezk. – Iruña).

Iruñean, 2018koaren(e)an

(Sinadura)



I. ERANSKINA

ESKABIDEA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI LANPOSTUAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO EUSKARAZKO EREDUKO ESKOLETAN

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ	JAIOTEGUNA	
NAZIONALITATEA	EGUNGO HELBIDEA	
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA		

Desgaitasunaren egiaztapena (hala badagokio, soilik).

Desgaitasuna dut, eta eskabidearekin batera egiaztatzen dut.

Nire desgaitasuna dela-eta, eransten dudan egokitzeapena eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik (beste orri batean).

AZALPENA:

Ez dut eritasun edo akats fisikorik edo psikikorik, karguan aritzea galarazten didanik, eta ez dut indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez naiz diziplina espediente bidez bereizia izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik, eta ez nago desgaituta edo gabetuta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz eta deialdiko baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Ez dut epai irmo baten bidez kondenarik jaso sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobei bitartez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian parte hartzeko, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan aldi baterako kontratu bidez aritze aldera. Deialdiaren iragarkia 2018ko ____. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, _____aren ____(e)koan.

Datuen babesa: Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Haur Eskolen Erakunde Autonomo honek langileen kudeaketa berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko, eta datu horiek Erakunde honetako langileen eta ordezkapenentarako lan-poltsaren fitxategietan bilduko direla. Hain zuzen ere, Erakunde honetara zuzenduta gauzatzen ahalko duzu datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, betiere bulego nagusira joaz (Olivetoko kondearen etorbidea, 4, -2. solairua, ezk. – Iruña).



Iruñean, 2018koaren(e)an

(Sinadura)

I. ERANSKINA

ESKABIDEA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI LANPOSTUAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO GAZTELANIAZKO EREDUA INGELESEZKO JARDUEREKIN DUTEN ESKOLETAN

IZEN-ABIZENAK		
NAN / AIZ	JAIOTEGUNA	
NAZIONALITATEA	EGUNGO HELBIDEA	
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONO MUGIKORRA	TELEFONO FINKOA
HELBIDE ELEKTRONIKOA		

Desgaitasunaren egiaztapena (hala badagokio, soilik).

Desgaitasuna dut, eta eskabidearekin batera egiaztatzen dut.

Nire desgaitasuna dela-eta, eransten dudan egokitzaipena eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik (beste orri batean).

AZALPENA:

Ez dut eritasun edo akats fisikorik edo psikikorik, karguan aritzea galarazten didanik, eta ez dut indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez naiz diziplina espediente bidez bereizia izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik, eta ez nago desgaituta edo gabetuta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz eta deialdiko baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Ez dut epai irmo baten bidez kondenarik jaso sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik.

ESKAERA:

Onartua izatea hautapoben bitartez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian parte hartzeko, IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOKO HAUR ESKOLAKO ZUZENDARI lanpostuan aldi baterako kontratu bidez aritze aldera. Deialdiaren iragarkia 2018ko ____. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, _____aren ____ (e)koan.

Datuen babesa: Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak Haur Eskolen Erakunde Autonomo honek langileen kudeaketa berezko dituen eskumenak gauzatzeko baino ez direla erabiliko, eta datu horiek Erakunde honetako langileen eta ordezkapenatarako lan-poltsaren fitxategietan bilduko direla.



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

Hain zuzen ere, Erakunde honetara zuzenduta gauzatzen ahalko duzu datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, betiere bulego nagusira joaz (Oliveto kondearen etorbidea, 4, -2. solairua, ezk. – Iruña).

Iruñean, 2018koaren(e)an

(Sinadura)



I. ERANSKINA

GAITEGIA

6. 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa.
7. 79/2012 Foru Agindua, abuztuaren 27koa.
8. 69/2013 Foru Agindua, uztailaren 5koa.
9. Iruñeko Udalaren Osasunari buruzko 4. Udal Ordenantza.
10. Iruñeko Udaleko Haur Eskolen ildo pedagogikoa.

II. ERANSKINA

GAITEGIA

1. Eskolako Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua Haur Eskolan.
2. Zer da Haur Eskola: antolakuntza eta funtzionamendua.
3. Girotze-lana, ekipamendua, material didaktikoak eta curriculum-materialak, Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza-etapan.
4. Teoria eta praktika psikopedagogiko nagusien eragina haur-eskolan: Pestalozzi, Froëbel, Decroly, Montessori, Malaguzzi eta Pikler.
5. Kalitatea, berrikuntza eta ebaluazioa. Kalitate-faktoreak Haur Eskolaren antolaketan eta funtzionamenduan. Kultura estatikoa eta kultura dinamikoa. Ikastetxearen ebaluazioa eta hobekuntza-planak.
6. Familiaren eta Haur Eskolaren arteko harremanak.
7. Hezkuntzako esku-hartze printzipioak eta oinarritzko metodologia, Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza-zikloan.
8. Haurrendako garrantzitsuak diren alderdiei eskolan ematen zaien arreta: harrera, janaria, loa, pixoihala aldatzea eta esfinterren kontrola.
9. Gatazkei aurre egiteko tratamendua Haur Eskolan.
10. Haur Eskolako zuzendaritzaren eginkizunak eta erantzukizuna. Kudeaketa estiloak. Xedeak eta printzipioak.
11. Pertsonen arteko harremanak eta talde-lana. Zuzendaritzako roletik lantaldean parte hartzea. Langileen motibazioa. Bileren gidaritza eraginkorra.
12. Arazoak nola konpondu eta erabakiak nola hartu. Konponbideak eratzeko teknikak. Erabaki eraginkorrak.
13. Gatazken konponbidea. Negoziazioa eta bitartekaritza. Akordio eraginkorrak. Elkar ulertze giroa sortzea. Estresaren kudeaketa.



14. Adimen emozionala zuzendaritzari aplikatua. Giza faktorea, laneko eta antolaketako gako gisara. Emozioak. Komunikazioaren eraginkortasuna.
15. Informazioa eta komunikazioa. Komunikazioa hobetzeko teknikak. Lan-giroa.
16. Denboraren kudeaketa: eskolako zuzendaritzan kontrolatu beharreko alderdia. Norberaren lanaren antolaketa. Presako lanak eta lehentasunezko lanak. Denboraren optimizazioa.
17. Lan-arriskuen prebentzioa nola kudeatu haur-eskoletan. Lan- eta osasun-baldintzak.